

Aretxabaleta,  
1992ko maiatzak 21

# Aretxagazeta

1992ko Udal  
aurrekontuak


• Erreportaia:  
aurrekontuak

• Atxabaltartua:  
Lorenza Fdez de  
Retana

• Antzerki  
hilabetea.

6 zka.





Hiru bat aste izango dira entzun nuela, haur baten ahotik: "Bizi izan ditudan abentura dibertigarrienak liburu bat zabaldu ondorengoak izan dira".

## Haur irakurleak

Bitxia, ezta? Horrelakorik entzutea ez dut anormala dela esango, baina arraro samarra bai.

Telebistan, akzio eta martxa nagusi diren mundu honetan, ez dago patxadaz eseri eta nobela bat edo ipuin bat irakurtzeko denborarik, irudiak erakusten digu dena, hain erraza da. Botoitxo bat zapaldu besterik ez.

Irakurtzea, ordea, ez da gauza erraza. Lehenengo ikasi egin behar da, eta gero saiatu. HAUR IRAKURLE BAT, ez dugu beraz, berez lortuko. Trebetasuna bultzatu egin behar da, haurrari irakurle izaten lagundu beharko diogu. Nortzuk?

Ba denok, denon laguntza beharko du, baina batez ere gurasoena.

Txikitatik hasia da onena. Gaur egun, hilabete batzuetako haurrak erabili ditzaketen liburuak ere aurki ditzakegu, plastikozkoak, uretan sartu daitezkeenak. Hasi gaitzen ba hortik, eta jarraitu dezagun ilustrazioak irakurritz, ipuinetako marrazkiak... Ene, zer dago hemen? Zertan ari da? Aber, Aber...

Aurrerago, haurra pisika bat hazten denean, eta barrakak datozenean, hara eramaten ditugu, denok batera. Eta ondo dago, zergatik ez? Baina, eraman ditzagun baita, ez beti,

baina noizean behin liburu dendetara eta erakutsi diezaiozun haurrari non bizi diren ipuinak eta liburuak... Sartzen garen bakoitzean ez dago derri gorrez erosi beharrik, hori bai, haurrentzako ipuin bat erosi aurretik, irakurri egin behar dugu geuk.

Liburutegia ere hor dago. Noizean behin ordu erditxo bat pasatzera joatea ere ondo legoke, haurra liburuarekin familiartzatu, ohitu dadin. Erabiltzera, ikustera, behatzera.

Ez da gauza erraza ez, baina saia gaitzen. Semalaba irakurleak eukitea, gure esku dago. Neurri handi batean behintzat.

" Eraman ditzagun haurrak noizean behin liburu dendetara eta erakutsi non bizi diren ipuinak eta liburuak "


Imanol Aginagalde. Udal Eskolaurreko zuzendaria.

**Aretxagazeta**

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos  
**Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Agurtzane Elkorro, **Argakiak:** Josu Lazkano, **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabeitia, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuam egiten da.



# Zer daukazu esateko?



**Ramon Eraña**  
(Langilea)

Almen azpian da-  
goen parajea, parke  
moduan ipini daiteke.  
Seguraski Atxabaltako  
Udalari ez zaio toketan,  
baina ibili Atxabaltako  
jendea egiten da. Uste  
dut komeni dela hari  
itxura bat ematea.



**Mariano Gonzalez**  
(Langilea)

Jendeari eskatu gura  
diot, Aretxabaletan egi-  
ten diren aktibitate des-  
berdinetan parte hart-  
zeko. Languntza neska-  
mutikoeekin lan egiten  
dugunoi eta horrela,  
zenbat eta gehiago la-  
gundu, kirol gehiago  
egingo dute neska-  
mutikoe.



**Maitane Arregi**  
(Ikaslea)

Atxabaltan pistina bat  
kanpoan ipintzea. Edo  
bestela, Arrasateko pisti-  
netara abuztuan joaten  
garen moduan hemen-  
go karnetarekin, uztai-  
lean ere joatea,



**Edurne Arenaza**  
(Ikaslea)

Ez dago gazteent-  
zako lokalik. Orain arte  
plazan egoten ginen,  
"sala de juegosean",  
baina orain kendu egin  
dute.

## KARTAK

### Eskerrik asko Patxi

Aurreko maiatzaren  
10ean Ojala-zelaiko 14.  
Kross Herrikoa egin zen  
eta oso eguraldiona egin  
zuenez jende asko  
gerturatu zen Urkulura.  
Kross Herrikoa, bai  
gaztetxoen mailan eta bai  
nagusienetan ere,  
ikusgarria izan zen;  
bertan geundenok goiz  
atsegina eta  
entretengarria pasetako  
aukera euki genuen.

Baina hori denori  
Urkulun gertatzen zen

bitartean, Ojala-zelaiko  
bidegurutzean trafikoa  
itxura txarra hartzen hasi  
zen. Jende asko  
zegoenez automobilerik  
ezin zuten atzera e-  
z aurrera egin, eta zenbait  
minututan trafikoa  
moztuta egon zen. Baina  
krossaren antolatzaileok  
zorte haundia euki  
genuen egun hartan.  
Areantza Etxebarriko  
Patxi Abasolo, zer  
gertatzen zen ikusita  
eta inork ezer eskatu

barik, bere zelai bateko  
erromara zabaldu zuen  
automobilak sartu  
zitezene eta konturatu  
orduko, Patxiri esker,  
arazoa konponduta  
geratu zen.

Ojala-zelaiko Kross  
Herrikoiak kategoria  
guztietan izan zituen  
irabazleak; baina  
lankidetzan Patxi izan  
zen txapel-dun. Detalle  
txiki hark gauza  
haundiak adierazten  
dituela uste dugu.

Barrero ere eskerrik  
asko Patxi.

*Ojala-zelaiko*  
*Krossaren antolatzaileak.*

Orrialde honetan  
kartak argitaratu gura  
badituzue, zuzendu  
gure bulegoetara edo  
151 postakutxatilara.





## Haurren astea

Udal eskolaurreak, maiatzaren 25etik 29ra bitartean, haurren astea antolatu du. Ekintzaz betetako astea izango da, jolasak egingo dituzte,

antzerkia, erakusketak... eta ekintzaz beteriko aste honi bukaera emateko, gaztelu puzkagarria jarriko dute.

## Antzerki hilabetea

Joan zen Aretxagazetan azaldu genuenez, maiatzean, Udal Kultura Batzordeak eta Gazteak antolatuta antzerki hilabetea egingo da.

Antzerki hilabete honen hasiera, joan zen zapatuan izan zen, Peters Robertsen aktua-zioarekin eta datorren zapatuan 23an, Taun-Taun txontxongilo taldearekin, "Bi kate" lana ikusteko aukera izango

dugu, Zarai zineman, gaueko 10etan. 29an berriz, Trapu zaharrak taldeak "Cobriexpres" lana antzeztuko du, arratsaldeko 7etan, Durana kalean.

Hilabete honi bukaera emateko, 30ean, Louviers taldearen "Telamarinera" lana ikusiko dugu, Kurtzebarri eskolako aretoan, gaueko 10etan.



Joan zen astean Maria Wörth plazako iturriak hiru bider gainez egin zuen.

Lehenengo aldiz

persostatoa apurto zelako eta beste bietan arramaren batek eraginda. Azkenik, arazoa konpontzea lortu da.

**EXPRESS  
AKEITEGIA**

Santa kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43

**NERIAN**

Loradenda

Otalora, 14 behea  
Tfnoa: 79 70 66



Mitarte, 21 behea

Tfnoa: 79 79 79

**ARETXABALETA**







## Udalekuetarako deia

Azken urteotan beazla, aurten ere uztaillerako umeentzako udaleku irekiak antolatu ditu Atxalbaltako Udal Kultura Batzordeak, herriko ume guztiendako. Euskalduntze prozesua indartu eta sakontzeko, Atxalbaltako umeek elkar ezagutzea, naturarekin harremanak sortzea eta umeak dibertitzea izango lirerateke udalekuen helburuetariko batzuk.

Udalekuak uztailean izan arren, izen emateko epea ekainak 18an bukatuko da. Udaleku hauen lehen txanda uztaileak 1etik 14era izango da, eta bigarrena uztailearen 26tik 29ra. Izena emateko Kultur-

Etetik pasatu eta txanda bakoitzerako 1.300 pezeta ordaindu behar da, bi txandetarako 2.500 pezeta.

Gauzak behar den moduan joan daitezten udalekuen antolakuntzarako begiraleak behar dira. Begiraleak apuntetako epea, maitzaren 20tik ekainaren 10era izango da, Kultur-Etxean. Bete beharreko baldintzak hauek dira: norberaren kurrikulumna aurkeztea eta 1.974ean edo lehenago jaiotak izatea.

Guzti horretarako informazio gehiago gura duenak Kultur-Etxera jo dezake. Ea herriko gazteak animetan diren

## Kartel lehiaketa

Udaleko Kultura Batzordeak Andra Mari jaietarako kartel lehiaketa antolatu du barriro ere.

Lehiaketa horretan edozein atxabaltarrek hartu dezake parte.

Teknika librea izango da, eta formatoak bertikalean 50 x 70 cmtakoa izan behar du. Kartelek derri gorrez testu hau izan behar dute: Andra Mari Jaiak 92 / Abuztuak 14, 15, 16 eta 17, Aretxabaleta. Kartelarekin batera, sobre itxi batean, egilearen datuak adierazi behar dira.

Lanak aurkezteko epea ekainaren 30ean bukatuko da, Aretxabaletako Kultur Etxera bialdu behar dira eta irabazlearendako ezarri den saria 35.000 pezeta eta plaka bat izango da.

Kartel Lehiaketa honetarako Epaimahia herriko Kultura Batzordeko partaideekin batera, herriko hainbat pertsonak osatuko dute.

• Everesteko espedizioari laguntzeko, Murruxoko mendizale elkarteak adierazi digunez, sudaderak salgai daude honako leku hauetan:  
**Expres tabernan, Zaraia tabernan, Urbaltz tabernan eta Murruxokoko lokalean.**  
**Sudadera bakoitzak 2.000 pezeta balio du.**

• Datorren ekainaren 6an, zapatuan, Taberna Berri jatetxean, 1967an jaiotakoek urteroko afaria egingo dute. Afari horretara joan gura duenak, Taberna Berrin eman behar du izena eta ohizko 1.000 pezetak.

**JAUREGI**

**OKINDEGIA**

Otalora, 10


**Aretxabaleta**

**SAGASTA**

**ELEKTRIZITATEA**

Elektrogailuak  
 Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14  
 Tfnoa: 79 16 10



**DORLAK**

**DORLA, S.A**

**ARETXABALETA**

**BASABE POLIGONOA, C.O.2.3**

Tfnoa eta Fax (943) 79 82 77





## Dorletako Ama txirrindulari eskola

Dorletako Ama Txirrindulari Eskola Mondragoen sortu zela esan daiteke, Club Ciclista Mondragones eta Club Ciclista Makatxenaren laguntzaz.

1991n Dorletako Amaren Batzordearen inizatibaz formalki eratu geratu zen, honako Elkarateon laguntzaz: UDA, C.C. Mondragones, Almen eta C.D. Eskoriatza.

Gaur egun, Elkarate horien laguntzaz aparte Eskoriatza, Gatzaga, Arrasate eta Aretxabale-tako Udalen laguntza ere badaukate.

### Sailak

Eskola kategoria desberdinetan banatuta dago: infantilak (13-14 urte), kadeteak (15 urte), jubenilak (16 urte), eta bigarren eta hirugarren

urteko jubenilak (17,18 urte).

Aurtengo denboraldian infantiletan 16 neska-mutiko dauzkate, kadetetan 16, 1. urteko jubeniletan 14, eta 2. eta 3. urteko jubeniletan 26.

Horretaz aparte, Foru Aldundia eta Gipuzkoako Federazioarekin elkarlanean dabilza eskolen arteko kirola bultzatuz; 4., 5. eta 6. mailako neska-mu-

tikoekin batez ere, goiko kategorietara igoko duten esperantzarekin.

Hori denori aurrera joan dadin, ezin ditugu aitatu barik utzi laguntzen dieten zenbait enpresa: Fagor, Lagun-Aro, JMA (Altuna), Donuts, Almacen del Mueble, Iker Altzariak, Arrasate Kirolak, Hotz-Bero, Chapime, Sport-Sasiain, Comercia-inoi, San Pedro Galdaragintza. Eta jakina, zaletu askoren laguntza paregabea.

### Arrakasta

Laguntza horiei esker, azken urteotan arrakasta inportanteak lortu dira Deba Garaiko txirrindulari eta zaletuendako.

Aurtengo denboraldian, profesionaletan, Dorletako Ama eskolatik pasatutako hiru txirrindulari daude, eskolaren fruituak, probintzia eta estatu mailan txapeldunak izan direnak: E. Alonso, Xabier Lazpiur, Asier Guenetxea.

NOVEDADES  
**FELI**  
MODAN DAGOEN GUZTIA!  
Iparragirre, 4  
Tfno: 79 21 24  
**ARETXABALETA**

**RKLU**  
INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK  
URKULU, S.A.  
Mitarte, 23  
Tfnoa: 79 96 66

**ZARE**  
ARTEGINTZA  
Lezama merkatal  
zentrua, 14

Autoservicio  
**ANGELINES**  
  
Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 61 42





# Onartu dira aurrekontuak

Aurreko egunean, arratsaldeko betan udaletxeko pleno aretoan Udalaren 1992. urteko aurrekontuak onartu ziren. Aurrekontuak gobernu osatzen duten hiru alderdien botuekin onartu ziren (EA, HB eta PSE) eta aurka EAJ-ko zinegotziak botatu zuten.

## Atzerapena

Aurten Gipuzkoa osoan (oraindik Foru Aldundikoak ez dira onartu) nahiko berandu dabilta aurrekontua onartzen, eta gure herria ere ezin zitekeen desberdina izan. Maiatzerarte itxoin behar izan dugu

1992ko aurrekontuak onartzeko.

Aretxagazetako zenbaki honetan zuendako aztertuko ditugu diru irteerak. Beste zenbaki batzuetarako utziko dugu hauek zehaztea eta bertan agertuko dugu zehatz-mehatz non erabilliko diren diruok.

## 184 milioi

Datu hauekin argi eta garbi agertzen da, diru irteeren kopuru handienetako bat gastu arruntean gastetan dela (%47,2) eta horri maileguak (prestamoak) gehitu ezker (%16), konturazten gara udaletxetik

kanpo ataraten den diru kopurua aurrekontuaren %36,87 dela.

Orduan, 184 milioi dira ekimenterako Aretxabaletan erabiliko diren diruak. Horrekin inbertsio desberdinak, kultura gastuak, zaharren egoitza, ongizatea, auzoak eta abar betetzen ahalegingo dira herriko ordezkariak.

## Balorazioak

Udalean ordezkariak duten lau partiduek balorazio desberdinak egin dituzte aurtengo aurrekontuei buruz. Alkatetza duen EAren erantziz pozgarria izan da

hain akordio zabala lortzea, hau da, EA, HB eta PSE aurrekontuan adostasunerara iristea. Herri Batasunaren erantziz, Udalak diru eta autonomia gutxi eukitzea salatzea da, baina dagoenarekin erantzun onena ematen saiatu dira.

EAJ-koendako herriak planteatuta dauzkan arazo sakonek ez dute erantzunik jasotzen aurrekontu hauetan eta dagoena baino diru gehiago gastetan da. Azkenik, PSE-koendako aurrekontu hauek gaur egungo eta etorkizuneko atxabaltarron beharrik gauzatzeko asmatan onartu dira.




Udalaren aurrekontuak, aurrekontu guztien moduan bi atal nagusi ditu: Diru sarrerak eta gastuak. Gastuak, kapitulu ezberdinetan banatzen dira, kontuan harturik zertarako gastatzen diren diruok. Hona hemen aurtengo aurrekontuetan Udalak banatu dituen kapituluak, atxabaltar guztiok ideia bat euki dezagun:

Kap.	Kontzeptua	Diru Kopurua	Portzentaia
1.	Soldatak eta Aseguru Sozialak	112.000.000	%22,4
2.	Gastu korrontea (Argia, zabor bilketa, bankuak, kale garbiketa, ura, materiala)	124.000.000	%24,8
3.	Maileguen interesak	45.000.000	% 9
4.	Diru laguntzak (Urats-gain, euskaltegia, UDA, Beinke, Murrukixo, Guraso elkarte...)	57.000.000	%11,4
5.	Inbertsioak	116.000.000	%23,2
6.	Ur-isurketagatik Kanona	6.000.000	%1,2
7.	ARINSA eta ASESa-ko akzioen erosketa	3.500.000	%0,7
8.	Maileguen amortizazioa	35.000.000	%7


## 1992ko AURREKONTUA

MILLOI PZTA





# Zer deritzozu joan den astean onartutako udal aurrekontuari?



**Pedro Mendieta**  
EA

Legealdi honetan, lehen aldiz, Udal Gobernuak, Eusko Alkartasuna buru delarik, aurrekontuei aurre egin die. Benetan lan neketsua (bile-rak, negoziazioak...) baina aldi berean pozgarria,

akordioa hain zabala ikusi ondoren. Guretzat, hiru dira aurrekontuaren ardatz nagusiak: Errekurtsoak lortzea (dirua erakartzea), gastuaren gestio zuzena, eta planteatutako inbertsioak aurrera eramatea ( Ura Aozaratzako eta Areantzako, Kanposantu berria, San Migelekoa Saneamendua, Ongizate eta Kultur ekintzak eta abar; honekin batera helburu garrantzitsu bat lortu nahi dugu: herriak eta herritarrek duten beharrei, erantzun zuzena eta egokia ematea.




**Aitor Irure**  
HB

Aurrekontuetaz hitzegiterakoan, ezin dugu ahaztu HERRI BATA-SUNAK behin eta berriz salatu izan duena, hau da, Udalen autonomia eza eta horrek suposatzen duen dependenzia

ekonomikoa.

Gaur egun dauzka-gun errekurto eskasak kontutan izanik, ezinezkoa zaigu behar guztiei erantzun egokia ematea, beraz, 92ko Aurrekontuak lehentasunei erantzuteko asmoz izan dira onartuak.

Udal Gobernu kide bezala eta jasandako erantzukizunaz jabetuz, Udal Gestioa urtetik urtera hobetzea izango da talde honen helburu nagusia eta iraunkorra.



**Koldo Azkoitia**  
EAJ

Aurkezten dan aurrekontuan, gastu korronteak, sarrera korronteak baino gehiago igotzen dira. Beraz ingratu dugun dirua baino gehiago gastatzen jarraitzen dugu. Ez dugu uste Udalak ematen dituen zerbitzuen kantitateak eta kalitateak gastuen igoera justifikatzen

duenik. Gastua razionalizatzeko, Udalaren barne antolakuntza hobetzeko beharra ikusten dugu.

Baina zenbat gastatzen den baino gehiago, atxabaltar guztien dirua nola gastatzen den, interesatzen zaigu. Eta zorritzarrez herriak planteatuta dituen arazo sakonak ez dute aurrekontu honetan erantzunik jasotzen; hezkuntza arazoa, langabezia, etxebizitzaren udal politikaren gabezia, Urkulu Plan Berezia ... ez dira, dirudienez, HB, PSOE, eta EAK osatutako gobernuarentzako, lan-du beharreko arazoak.



**Iñaki Pierrugues**  
PSE-PSOE

Gaur egun eta etorkizuneko atxabaltarren beharrak gauzatzeko tresna da Udalaren aurrekontua: etxebizitza, lanpostuak, hezkuntza, ongizatea, aisialdia edo denbora libre, kultura, e.a.

Aurten markatuta

ditugun helburu hauek betetzea espero dugu: Gastuak aztertu eta gastuei eustea, herritarren-ganako zerbitzuak hobetzea; herritarren parte hartzea arautzea eta Aretxabaletaren etorkizunerako politika erabakitzea.

PSE alderdia, etorkizunean ere orain arte bezala, herritar guztion mesederako izango den hirigintza gizatiarra-goaren alde gogo handiz lanean jarraituko du.



## Lorenza Fernandez de Retana Arabatik Atxabaltara

- **Non jaio zinen?**
- Mendoza (Araban).
- **Edadea?**
- 87 urte.
- **Noiz etorri zinen Atxabaltara?**

• 1937an. Ezkondu eta gero.

- **Zergatik etorri zinen?**

• Han lan asko egin behar zen, ez zeuden gaur beste abantaila. Askotan egun guztia lanean ematen genuen, goizeko laurak arte, hala ere ez genuen kafesnerik hartzen. Gero, goizeangoiz, egurrarekin Gasteizera joan behar izaten genuen eta Gasteizen sartzeko, aduana bat zegoen, han erreal bat ordainduta sartzen ginen. Ezin genuen edozein gauza saldu, beti begiratu eta kontrol bat eramaten zuten.

Salduta gero barriro lanera. Askotan zenbat eta gehiago lürra landu eta erain, txarragoa zen, zenbat eta gehiago egin, gehiago kentzen zigten.

Beraz lan asko, txar-tojan eta gainera errealik barik. Horregatik etorri ginen Atxabaltara.

- **Etorri zinenean non hasi zinen lanean?**



• Hasieran Laminazioan barrera-zain hasi nintzen lanean, bi pezetagatik. Gero rekadista hasi nintzen lanean, orain dela 43 urte. Orduan Gasteizera birritan joaten nintzen, goizeko 8etan joan eta 4retan etorri, bigaia trenez egiten nuen. Orduan, ogia ekartzen nuen, eta treneko langileak, gure moduan goseak egoten ziren eta pozik hartzen zuten emandakoa.

- **Zure lehenengo inpresioa?**

• Atxabalta orduan txikia zen, baina Mendoza baino haundiagoa.

- **Hasieran ze izan zen gehien kostatu zitzaizuna?**

• Etorri ginenean, hauteskundeak zeuden, nik ez nuela botatu behar esan nuen, ez bazidaten ezer ematen, eta partidu batek lau pezeta eman zidan eta hari eman nion botoa. Baina gero bes-

teak enteratu eta bi hilabeteko soldata kendu zidaten.

Soldata kendu zidatenean, Atxabatako Falingearen nagusiarengana joan nintzen, Mendozako nire informearrekin, ni inorekin ez nintzelaz sartzen demostretako, baina ez zidan kasurik egin, manifestaldietan parte hartzen ez nuelako.

- **Euskarak ze inpresio egin zizun?**

• Hasieran arraroa iruditu zitzaidan. Jendeak papelak euskaraz bidaltzen zizkidan eta nik ez nuen ezer ulertzen. Askok esaten zidaten euskara irakatsi behar zidatela, eta nik beti erantzuten nien, irakatsi bai, baina nik ikasteko oso zaila zela.

- **Herriminik bai?**

• Bai. Oraindik Mendozan 4 anai-arreba ditut eta lehen askotan joaten nintzen.

- **Zeure burua Atxabaltartzat daukazu?**

• Bai, hainbeste urte pasatuta gero...

- **Anekdotarik?**

• Orain Gasteizen, aireoportua dagoen lekuan, Mendozako mutilak eta beste herri batzuetakoak, futbol zelaia egin zuten eta hara joaten ginen futboleko jokaketa. Eta hortik etorri zitzaidan futbolerako afizioa, urte askotan izan naiz U.D.Ako afizionatua, arbitruak ere ondo ezagutzen ninduten.



Unai eta Ibon Errastiren zaletasunik handiena pelota da. Orain, mutiko guztiek futboleko jokaketan dute, baina mutil bi hauek, aitaren laguntzarekin pelotan hasi ziren. "aitak animatu gintuen pelotan jokaketako, berari hori gustetan zaio, eta gu nahiz eta futboleko ibili, pelotan hasi ginen futbola utzita".

Orain arte euskadiko txapelketan ibili dira. "aurten 5. geratu gara Euskadiko txapelketan, 4 sailkatu ziren eta gu 5.ak geratu gara 4.ekin berdinduta, 3 punturengatik ez gara sailkatu".

Jendeak pelotarako zaletasuna galdu egin du, baina mutil bi hauek,



Joan zen maiatzaren 10ean, Otalazelaiko kross herrikoia izan genuen Urkulun. Jende ugari bildu zen, eta korrikalariak Krossak duen errekorra gainditu ez arren, egun polita izan zuten. 4 kategoriatan banatu zen Kross hau: Seniorretan irabazle, Santi Azurmendi Azpeitirra izan zen, beteranoetan Jose Galan, Arrasatearra. Juniorretan Alex Saavedra Arrasatearra eta emakumeetan Gloria Azpiukueta Lezotarra. Atxabaltarrak ere izan genituen, aurrean ibili ez arren, lan polita bete zutenak.

## Unai eta Ibon Errasti, herriko pelotari gazteak

betiko ilusio bera daukate. "Jende gutxi dugu Atxabaltan pelotan jokaketako. Aurten ume asko hasi dira, baina haundietan 6 pelotari gaude. Jendea txikitan pelotan hasten da, baina gero futbolerak pasetan da". Beraz Atxabaltan ez dago zaletasun haundirik. "Ez

dago, baina egon daiteke, badaude pareja onak txikitatik hasten direnak, baina gero galdu egiten dira".

Unai eta Ibonek astean bi egunetan entrenetan dute, martizen eta eguernetan. "Baina gero bakoitzak bere aldetik arineke-

tan egin behar du, ez da bakarrik frontoian entrenatzea, bakoitza bere aldetik preparatu behar da."

Euren aita dute entrenatzaile, eta asko laguntzen die. "Beragatik ez balitz, ez ginateteke hemen egongo, asko laguntzen digu".

**URRETXXO**

Pinturak, papelak, moketak.

Gorbea 2  
Tfnoa: 79 04 16  
**ARETXABALETA**

**ohialak**

Gorbea, 4  
Tfnoa: 79 87 36  
**ARETXABALETA**



**BRIKO  
-LAN**

SANTAKURTZ KALEA,4  
TFNOA: 79 68 58  
**2005 ARETXABALETA**





**E** saten dute, esaten, gure nagusiek, denborak gauza gehienak (ala denak?) aldatzen dituela. Badakigu bai, denbora aldakorra dela, eta askotan ez dakigu berak begiratzan

gaituen, edota gu garen berari begira gaudenak.

Bazirudien garai batenko irudiak, jarrerak, ideologiak, jokaerak, betirako zirela (lotua eta ondo lotua!) baina denborak, eta gu gurpil ho-

rren barruan bueltaka, beste alde batera jo du.

Orduko Andramaixak eta gaurkoak... Ezer gutxi behar izaten zuten jai giroa alaitzeko, kotxe baten gainean igo (Eskoriatzako okina zen

Rafa Badiolaren kotxe gainera), bonboa hartu (Urci Velasco) eta ingurukoak dantzan jartzeko (kotxearen eskumaldean Manuel Acosta, eta espaloi ondoan Zuazua, Egileor baserrikoa).

Al! baina guztiak jakin zezaten bidea nondik zihoan, hor zegoen ezker aldeko balkoian, zelari, zain, atxabaltarren ohitura onen defendatzaile, F.E.T y de las J.O.N.S., eta ondoko balkoian Centro Católico zena. Gaztetxoek galde iezaiezue zuen gurasoen sigla horien esan gura eta ekintzak. Beste garai batzuk ziren. 1959ko Andramaixak 3. eguna.

## ERRETRATOAREKIN JOLASEAN

• Erantzun guztiak ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

• Asmetan dutenen artean Everest espedizioko jertse bat zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

**Ze baserritan dago argazkian agertzen den armarria?**

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Oroko, Iturralde baserrian).



Aurreko lehiaketaren irabazlea JORGE CARRETERO MARTINEZ izan da. Zorionak!

Erantzuna: .....


• Izen-abizenak: .....

• Helbidea: .....

• Tfnoa: .....



## AMANTALAZ



Oraingoan sukaldaria: Fernando Etxebarrieta

## Piper beteak

Lau lagunendako osagaiak:

20 bat pikilo-piper

Onddo baltzak (400 gr.)

3 kipula

4 piper berde

Porruaren gorputza (zuria)

Basokada bat ardo zuri

Olioia

2 arraultz

Pote erdi tomate.

**Zelan egin:**

Kipula bat zatitu eta sutan ipini kolorea hartu arte. Eginda daudenean piperrak bete, irina eta arraultzetik pasatu eta frijitu. Horren ostean, buztinezko ontzian ipini.

Saltsarako beharrezko gauzak: 2 kipula, 3 piper berde, porruak, ardo zuria, olioia eta tomatea. Hori denori irabigailuarekin (batidora) txiki-txiki utzi, txinotik pasatu eta buztinezko ontzira bota.

## POESIA

Zu ezagutzeaz bat  
maitemindu nintzazun,  
orain galdu zaitudala  
pere barrua galtzen da;  
gure parketik paseatzean  
haizea nire belarrietara ziztuka  
eta zure izenak badinost  
une zaharrak gogoratu  
arriskutsuki bizi izan ginela.  
Begietara begiratu nahi dizut  
eta orain sentitzen dudana esan  
baina nire ezpainek esango lizukete  
ez dakidala zer esan;  
kaletik noanean  
zapaltzen dudana pauso bakoitza  
zure ondorantzkoa da,  
ziur zapaldu nahi nuke  
lehenengoan zaplast egin gabe,  
badakidalako oraindik ez nauzula maita  
baina espero dut inoiz maiteko nauzula,  
bai . . .  
bai . . .  
noizbait maiteko al nauzu . . . jainkoak nahi al du!

*Jon Lekunberri*

**Orrialde honetan txisteak, poesiak, bertsoak... argitaratu nahi badituzu, zuzendu gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.**

## KOMIKIA





# APUNTETAKO

## 23 ZAPATUA

- Eskolarteko olinpiadak Oñatin. (Goizeko 9etatik, arratsaldeko 6rak ingururarte)

- Gaueko 10etan, Zaraia zinemari TAUN-TAUN Txontxongilo taldeak "BI KATE" antzezlanarekin eskeinitu du.

## 24 DOMEKA

- Zaraia mendizale taldearen irteera: Muga-

rra.

- Murruxiko mendizale taldearen irteera, Anbotora.

- Zikloturisten irteera: Aretxabaleta - Arlaban - Heredia - Salvatierra - Opakua. ( 85 Km )

- Futbol partidua: U.D.A - C.D.Danak.

## 28 EGUENA

- Zaraia mendizale taldearen eskutik filme baten proiektzioa.

## 29 EGUAKOTXA

- Arratsaldeko 7etan, Durana kalean TRAPU ZAHARRAK antzerki taldeak " COBRIEXPRES " antzezlanarekin eskeinitu du.

## 30 ZAPATUA

- Ortzadar taldearen irteera: Apotzara.

- Gaueko 10etan, Kurtzebarri eskolako aretoan, LOUVIERS tal-

deak "TELA MARINERA" antzezlanarekin eskeinitu du.

## 31 DOMEKA

- Murruxiko mendizale elkartearen irteera: Gatza - Urbixa.

- Zaraia mendizale taldearen eskutik, Gazteen III. Martxa neurtu herri mailan.

- Zikloturisten irteera: Aretxabaleta - Urbina - Gasteiz - Eroski - Nanklares - Aretxabaleta. (96 Km).

- Txirrindulari lasterketa. Gazte mailako Gipuzkoako txapelketa.

# ARETXAZOKA

### Etxebizitzak

- Herriaren erdigunean kokatutako etxea salgai. Deitu: 7 9 6 4 9 3 telefonora.

- Garaje bat salgai, Andra mari auzunean. Tfnoa: 79 47 62

- Garaje bat salgai Otxalora, 11 kalean. Tfnoa: 79 47 62

### Lana

- Pertsona nagusia zaintzeko andra euskaldun bat behar da Arxabaltan. Deitu egin 10etatik 12etara 79 55 02 telefonora.

- Etxeko lanak egin eta ordu batzuetan ume bat zaintzeko neska euskaldun bat behar da. Interesatuak deitu: 79 65 13 telefonora.

### Salerosketak

- "Makario" markako egoera onean dagoen korredorezko bizikleta bat saltzen da. Oso merke. Tfnoa: 79 97 88

- Bi gela bikoitzeko kanping-denda salgai egoera onean. Deitu egin 8etatik 10etara 79 56 06 telefonora.

Orrialde honetako iragarkiak ( lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.



**SEAT**  
  
**GARAGE**  
**OSKAR**  
 Basabe poligonoa  
 A - 2 - 4  
 Tfnoa: 79 98 74

**ZARAIA TABERNA**  
 GOIZEKO 5,30etatik  
 ZURE ZERBITZUAN  
  
 MANTEKA  
 ANAIK

**BASABE**  
**JATETXEA**  
 Menu eta afariak  
 Industrialdea  
**ARETXABALETA**  
 Tfnoa: 79 31 84

**GARAGE**  
**" EDER "**  
 Karrozeria  
 mekanikoa  
 IBARRA Z/A  
 Tfnoa: 791666  
**ARETXABALETA**

**Mobiliario**  
**ARENZA**  
 ALTZARIAK  
 DISEINUA  
 APAINKETA  
 BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

 **EROSKI**  
 Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.  
 DURANA ETA ARALAR KALEETAN  
 Tfno: 79 16 05

 **MIREN & ZURINE**  
 BITXITEGIA  
 BITXIEN DISEINUA  
 Otolora kalea, 4 - Tfnoa: 77 13 57  
**ARETXABALETA**

 **ARRIZABALAGA**  
**ARROZTEGIA**  
 Sukaldeko altzairu eta armairu enpotratuak  
 Tfnoa: 79 49 73 **ARETXABALETA**

**OILASKO - URDAITEGI - IZOZKIAK**  
**IÑAKI**  
 Gipuzkoako Plaza, 1 Tfnoa: 77 02 99  
**ARETXABALETA**

*Urozkitegi, S.L.*  
**GOZODENDA**  
 eta IZOZKIDENDA  
 Otolora Kalea, 4  
 Tfnoa: 77 13 57



**IBARRA ESTANKOA**  
 TABAKO, IKAS MATERIALA ETA ZERGA  
 IMPRIMAKIEN SALMENTA  
 Bizkaia, 3  
 Tfnoa: 79 23 77  
**ARETXABALETA**

**KIKRO**  
 AKEITEGIA  
 MITARTE, 3  
 Tfnoa: 77 10 81  
**ARETXABALETA**

**ARETXABALETAKO**  
  
**GAZTETXEA. A. G. A.**



# ALMEN IKASTOLA



- Ikasleak bizitzan beharrezko izango dituen baloreak eta ahalmenak garatzen laguntzeko Heziketa Proiektua.


- Ondorengo ikasketen arrakasta ziurtatuko duen aldez aurreko prestaketa lana.

- Irakaskuntzaren maila guztiak:

- OHO
- Batxilergo Orokorra
- Goi Batxilergoa
- zientifikoa
- Humanistikoa

- III Mailako MODULU PROFESIONALA  
"Ekintza soziokulturalak"  
"Kirol ekintzak"

- Eredu guztiak A - B - D



**ALMEN**  
IKASTOLA

## MATRIKULA EPEA ZABALIK

Ordutegia: egunero 8.30etatik 5.30ak bitartean

**OHARRA:** Gure proiektua hobeto ezagutu nahi baduzu hurbil zaitetz edo deitu ALMENERa.

Torrebaso z/g Tfnoa: 79 57 00 / 79 65 89